AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

4174

EBAZPENA, irailaren 17koa, Langileriaren Kudeaketako zuzendariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko Aginduaz deitutako hautaketa-prozesuan onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrendak onartzen dituen. Agindu horren bitartez. Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egiten da.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 2012ko ekainaren 26ko Aginduren bitartez (2012-05-10eko EHAAn argitaratua), Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketarako deialdia egin zen.

Aipatu deialdiko 4. oinarriko 1. paragrafoan honako hau ezartzen da: eskabideak aurkezteko epea amaitzen denetik harako hilabeteko epearen barruan, onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzeko ebazpena emango du Langileriaren Kudeaketako zuzendariak.

Hori guztia dela eta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko ikuskatzaileen kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketan parte hartzeko onartuen eta baztertuen behin-behineko zerrenda onartzera; betiere, bazter uzteen arrazoiak aditzera emanez.

Hezkuntzako lurralde-ordezkaritzetan eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Interneteko helbidean argitaratuko da zerrenda hori: http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.net

Bigarren artikulua.– Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik harako 10 egun balioduneko epearen barruan, onartuen eta baztertuen zerrendaren aurka hautagaiek erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte, edo, egoki bada, bazter uztea eragin duen akatsak zuzendu ahal izango dituzte. Epe horretan, halaber, euren datu pertsonalei dagokienez hutsak atzeman dituzten hautagaiek aditzera eman ahal izango dituzte.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko irailaren 17a.

Langileriaren Kudeaketako zuzendaria,
JUAN MANUEL ARAMENDI ARTEAGA.